

Kilometroak '18

2018ko urriaren 7a
Urretxu - Zumarraga



Zubiak

zu, ni

ni, zu

biak...





**DIBERTSIFIKAZIOA
ETA PERTSONEKIKO
KONPROMISOA
DIRA GURE
ETORKIZUNEN
BERMEA**

Erreka Taldea
Ibarreta Auzoa z/g
20577 Antzuola. Gipuzkoa

T. 943 786 150
F. 943 787 109
info@erreka.com

www.erreka.com



FINKAPEN SOLUZIOAK



PLASTIKOAK



AUTOMATISMOAK



ATE AUTOMATIKOAK

Kilometroak

Aldizkaria @

Argitaratzailea:

Urretxu-Zumarragako Ikastola

Diseinu eta maketazioa:

Eneko Maiz Azpiroz

Inprimategia:

Gertu inprimategia (Oñati)

Tirada:

26.000 ale

Argitaratze data:

2018ko iraila

Aldizkari honen 26.000 ale banatu dira. Hauetatik 8.000 Urola Garaia eskualdean etxerik etxe. Beste 16.000 Gipuzkoako ikastoletako ikasleen etxeetara.



URRETXU
ZUMARRAGA **ikastola**



ikastolenelkartea



Batuz egingo gara handi

Z.U. (Zumarraga-Urretxu) **Blak Bat**
U.Z. (Urretxu-Zumarraga) hitz jokotik sortutako leloa eta *Meccano* jolasa gogora dakarren K18 irudia aurkeztuz jarri genuen martxan azaroan gure hirugarren Kilometroetako makinaria. Ia urtebete genuen aurretik eta ha- maika egitasmo gauzatzeko. Aldizkari hau zuen eskuetara iristen denerako, aste gutxi batzuk baino ez dira falta- ko urriaren 7a iristeko, eta asmo ziren haietako gehienak egin ditugu.

Guztiak hemen aipatzea ezinezkoa zaigu, baina bereziki gogoratu nahiko genituzke guretzat mugarri izan diren hiru ekitaldi: otsailean ospatutako belaunaldi arteko lasterketa, adin guztietako herritarren topagune izan zen proba arrakastatsua; martxoan Kilometroetako eredu berria aurkezteko egindako ekitaldia, Kilometroak Kultur Erakundeak egindako hausnarketa prozesuaren emaitzak ezagutzera eman zituena; eta ekainean Donostiako Kursaal jauregian egindako *Zubirik Zubi*

ikusizun gogoangarria, Kilometroak jaia Gipuzkoa osora zabaltzeko balio izan zuena.

Modu askotara batu ditugu zubiak: bertsoan, kantuan, dantzan, kirola eginez, elkarte eta norbanako ezberdinekin elkarlana sustatuz, Gipuzkoako herri eta txoko guztiak bisitatuz... Ibilbide guztian *Zubizikleta* izan dugu lagun, Kilometroak 2018ko logoaren bilakaera moduko bat, ikastolako kide garen guztion indarrak batuta esku artean dugun erronka honi eta gerora etorriko direnei aurre egiteko gai garela erakusten duena.

Eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, orain arte babesa eta laguntza eman diguzuen guztiei eta urriaren 7an Urretxura eta Zumarragara etorriko zareten guztiei. Jai egitarau anitza eta zabala prestatu dugu, eta ederki pasako dugu elkarrekin. Zatozte! Batu zaitetzte zuek ere! Kantak dioen bezala: "... batuz egingo gara handi".

Ikastolako bost ikasle, Kilometro Txikia ospatu genueneko *photocall*-ean.



Euskararekin bat!

AGRYMIN COMPONENTES S.A.

Polig. Ind. Argixao, 23
20700 Zumarraga
(Gipuzkoa)
P.O. Box 37

T. 943 72 09 03

F. 943 72 42 82

comercial@agrymin.com

www.agrymin.com

« Elkarlana arrakastarako bidea dela ikusi dugu, eta horretan jarraituko dugu »



Beste ikastola askok bezala, Urretxu-Zumarragakoak ere badaki zer den egoera zailak bizitzea, eta zulo beltzetik ateratzeko indarrak batzea dela gakoa. Oraingo honetan ere, kide guztien lanari esker ametsa egia bihurtzea lortuko dute: ikastola guztiz berritzea

Euskal Herriko ikastola gehientsuenak bezala, mende erdia beteta, berrikuntza prozesu bete-betean dago Urretxu-Zumarraga Ikastola, ezta?

Duela bost urte gutxi gorabehera, eta hausnarketa prozesu baten ondorioz, ordura arte genuen hezkuntza sistemak aldaketa behar zuela ondorioztatu genuen. Hezkuntza gizartearen beharretara egokitu behar dugu, beraz, gure ikasleak gizarteak eskatuko dien horretara moldatzeko prestatu behar ditugula argi dago. Gizartea asko aldatu da, eta eskola, aldiz, oso gutxi. Hezkuntzaren xedea adostu ondoren, ikastolak 0 eta 18 urte bitarteko ikasleei eskainiko zien marko pedagogiko berria definitzeari ekin genion, eta ildo estrategikoak markatu (2013-2018 Plan Estrategikoa).

Ordutik, pauso garrantzitsuak eman ditugu. Eguneroko praktika uneoro aztergai izan dugu, ikasleek bizitzan izango dituzten erronkei arrakastaz erantzun diezaieten prestatu nahi baititugu. Behin pedagogia berria definituta, eredu hori garatzeko egitura arkitektoniko egokia definitu genuen. 2017ko udaran Haur Hezkuntzako gunek berritu genituen. Aurten, berriz, LH eta DBHko lehen zikloko guneean ari gara lanean.

Berrikuntza lan horiek burutzeko da, hain zuzen ere, Kilometroetako dirua?

Berritze lanen lehen fasea 2006 urtean Ikastola berria egiteko erosi ziren lurren salmentatik lortutako diruare-



HHko gune berriko espazio zabaletan ederki gozaten dute ikasle txikiak.



kin egin dugu. Ez da nahikoa izan, ordea, eta berrikuntzarekin aurrera egin ahal izateko Kilometroak jaiaren antolaketa eskatu genuen. Bertatik lortuko dugun dirua horretarako erabiliko da.

Hain zuzen ere, garai zailak ere pasa dituzue, ezta?

Zailak eta oso gogorrekaldi berean. Lehen esan dudan bezala, 2006an erabaki zen Ikastola lekuz aldatzea, eta egun Gurutze Auzoa deitzen den lurretan Ikastola berria egiteko lur sailak erosi genituen. Garai hartako udal gobernuarekin gaia itxita zegoen, eta dena prest eraikitzen hasteko. 2007ko udal hauteskundeetan ostean Udala beste alderdi politiko baten esku geratu zen, eta Ikastolako proiektua bertan behera utzi zuen. Irtenbidea emango zitzaiola adierazi arren ez zen horrela izan, eta Ikastola zorretan geratu zen, ekonomikoki itota eta hain beharrezkoak genituen berritze lanak egin ezinik. 2008an krisiak gogor jo zuen gure gizartea, eta Ikastolak ere jasan behar izan du egoera hori. Hala ere, egoera txarrekin beti ekartzen omen dute zerbait ona, eta gure kasuan ere horrela izan da. Indartuta irten gara, Ikastolako komunitateak erakutsi du berriro ere egoera zailak kudeatzeko daukan indarra eta kemena, eta, 50 urte igaro ondoren, gure historia da horren lekuko.



Lehengoe eta oraingoe, guztiek erakutsi dute dantzarako gogoia eta grina.



Kilometroak jaiaren antolaketaren helburu ekonomikotik harago joan nahi genuen eta nahi dugu, Ikastolako komunitatea indartzea, herriarekin eta herrietako eragile desberdinekin elkarlanean aritzea eta guztiekin zubiak eraikitzea, indarrak batuz.



Montse Alkorta
UZ Ikastolako zuzendaria



Zenbat jolas egin ote duten gure ikasleek Euskal Herriko hondartzetan.



Duela 50 urte Ikastola sortu zenean bezala, oraingoan ere familiak eta oro har Ikastolako kide guztiak gogor lan egiten ari dira?

Nik esango nuke gure nortasunaren edo identitatearen ezaugarri nabarmenena dela, eta, oro har, Ikastola guztiena. Herritik sortu ginen, euskaldunok genuen behar bati erantzuteko, hain zuzen ere. Eta urte batzuetan indar hori ahulduta egon bada ere, une honetan komunitate osoaren parte hartzea eta lana azpimarratu beharko genuke. Izan ditugun egoera zail eta gogor horietatik irteteko indarrak batu egin behar izan ditugu, eta boluntarioen lana azaleratu da beste behin. Proiektua denona egin dugu, elkarlana arrakastarako bidea dela ikusi dugu eta horretan jarraituko dugu. Kilometroak jaiaren antolaketaren helburu ekonomikotik harago joan nahi genuen eta nahi dugu, Ikastolako komunitatea indartzea, herriarekin eta herrietako eragile desberdinekin elkar lanean aritzea eta guztiekin zubiak eraikitzea, indarrak batuz.

Zein erronka ditu Ikastolak datozen urteei begira?

laz 50. urteurrena ospatu genuen. Ospakizunez gain, geldiduna eta hausnarketarako abagunea izan da. Nola sortu ginen? Zertarako? Zein da orain daukagun erantzukizuna? Ikastolako sortzaileekin hitz egiteko aukera eman digu urteurrenak, eta konturatu gara garai hartako printzipioak eta helburuak egun indarrean daudela. 'Konfiantza' hitza entzun dugu behin eta berriz, eta ziurrenik ez da kasualitatea izango 50 urte igaro ondoren Konfiantzaren Pedagogiaren hautua egin izana. Dena egiteko omen zegoen, dena eraikitzeke, eta orain ere hala da: eredu pedagogiko berria eraikitzen ari garen honetan gauza asko egiteko daude. Elkarlanean lortu dugu Ikastola orain dena izatea, eta horretan ere jartzen ari gara gure indarrak, elkarrekin, Ikastola osatzen dugun guztion artean egiten ari gara, indarrak batuz. Bidean asko ikasi dugu, eta ikasitako hori baliatuz gure proiektua herriari eskaini nahi diogu, hasieran izan zen bezala.

Gipuzkoako Ikastola guztien inplikazioa beharko du Kilometroak berriak

Martxoaren 17an aurkeztu genuen Zumarragan Kilometroak jaiaren eredu berria, hau da, nolako izango den gure jaia 2020. urtetik aurrera. Bi urteko hausnarketa prozesua egin dugu Gipuzkoako ikastolak, jaiaren indarguneak eta ahulguneak aztertuz eta etorkizunean zein bide hartu nahi dugun eztabaidatuz.

Ane Barrusok, Bergarako Aranzadi ikastolako zuzendariak, primeran azaldu zuen martxoko aurkezpen hartan sentipen gazi-gofoak gelditu izan direla ikastolatan Kilometroak antolatzerakoan. Alde batetik, oso harro sentitzen gara horrelako erronka bati aurre egin ahal izan diogulako. Bestetik, ordea, beti egoten dira "baina" esateko hainbat arrazoi. Ikastola ereduaren berezko balioak bultzatzeko ahal-egia handia egin behar izaten dugu; izan ere, komunitatearen zentzuak eta aldarrikapenek indarra galdu dute.

Hori horrela, Kilometroak berriaren helburuen artean egongo dira ikastolen mugimenduaren misioa betetzea eta ikastola bakoitzaren komunitatea zein Ikastolen Elkartea sendotzea. Bide horretan, naziotasuna ere indartu nahi dugu, beste lurraldeetako jaiekin harremanak sendotuz.

Ekitaldiak urte osoan

Parte-hartzea bultzatzea eta ikasleak ahal-duntzea ere eredu berriaren premisen artean daude eta, horretarako, Nekane Artolari,

Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakariari, behin baino gehiagotan entzun diogun bezala, Gipuzkoako ikastola guztien inplikazioa beharrezkoa izango dugu. Izan ere, urriko lehen igandeko jaia antolatzea ikastola bati egokitu bazaio ere (2020an Villabona-Zizurkilgo Zubimusu ikastolari), urte osoan beste hainbat ekitaldi, jaialdi eta ekimen antolatuko dira, eta horien antolakuntza beste ikastola batzuen esku geldituko da.

Hain zuzen ere, urriko azken jai hori urte osoko lanaren emaitza bihurtu nahi dugu. "Autokoizpenean oinarritutako" jaia egingo dugu hein handi batean, gure ikastolako taldeen emanaldiak bultzatuz eta Kilometroak kultura harrobi bilakatuz.

Aldaketa horiek guztiak ez dira goizetik gauera martxan jarriko, progresiboki gauzatzen joango gara. Dagoeneko, argi dago Kilometroak urriko jaia baino askoz gehiago dela. Nazio Topaketa, Erronka, Mendimetroak, Donostiako jaialdia, Klikmetroak, Gure Zozketa, arropen salmenta, kontzertuak, bertso jaialdiak... asko dira urte osoan egiten diren mota guztietako ekimenak.

Aurrerantzean ere bide hori jarraituko dugu. Hausnarketa prozesua izan den bitartean ospatu diren Kilometroak jaiek eredu berriaren bidea hartu dute hainbat gaitan. Aurten Zumarraga-Urrretxun eta hurrengo urtean Zarautzen egingo direnek ere helburu hori izango dute, eta benetako aldaketa 2020an nabarituko dugu.

10 premisak

- 01 • Ikastolen munduaren misioen isla
- 02 • EHI sendotzeko jaia (mugimendu-korporazio bezala)
- 03 • Ikastolen jaia nori zuzentzen zaion argitu: Ikastolen komunitatea sendotu
- 04 • Kontsumoa ikuspuntu kritiko eta kontzientean aztertuz, parte hartzea areagotu (ludikotasunaren bitartez aurrez aurreko harremanak indartu)
- 05 • Naziotasuna indartu
- 06 • Misioaren arabera jaiaren xede ekonomiko-errentagarria birkokatu
- 07 • Ikastolen aldeko jai eguna urte osoko prozesuaren emaitza da
- 08 • Jai(en) formatua(k): berritzailea, garaikidea, eraldatzailea
- 09 • Jaiaren dimentsioa birkokatu
- 10 • Ikasleak ahaldundu

MANGANESOAREKIKO ALTZAIRUEN APLIKAZIO TEKNIKOAK

Egumendi, S.L.

www.egumendi.com






Ipiñarrieta, 48 - Tel.: 943 72 33 01 - Telefaxa: 943 72 43 41

URRETXU-ZUMARRAGA

UROLAGARAIA

S E R E N D I P I A

Zatoz Urola Garaira eta aurkitu
Euskal Herriko benetako esentzia.



**LARUNBATA
ETA IGANDEA**

Antioko Interpretazio zentrura, Igartubeitira eta Mirandaolara bisita.
Santa Barbaran gau bat. Bazkaria, afaria eta gosaria barne.
Parte-hartu www.urolagaraia.com webgunean. Epemuga: azaroak 4.



**FAMILIA
PLANAK**

Igartubeiti (Ezki)

i 943 722 042 www.urolagaraia.com

Canon

CANORLAN

• Baimendutako Banatzaile Ofiziala •

Euskararen alde!

Gudari Kalea, 1 behea
20400, Tolosa (GIPUZKOA)
943 65 33 80
canorlan@canorlan.com



Talde lanean, elkarrengandik ikasiz

2016ko martxoan jakin zuen Urrretxu-Zumarraga Ikastolak 2018ko Kilometroak antolatuko zituela. Eskaera egiten zuen hirugarren urtea zen, eta pozik hartu zuen berria. Orduan urruti zegoen 2018ko urriaren 7a. Bi urte gelditzen ziren eta, gainera, Ikastolak 50. urteurrena ospatuko zuen 2017an. Horri heldu behar lehenago.

Borobila izan zen urteurren ospakizuna: kanta, argazki erakusketa, Pirritx, Porrotx eta Marimotsekin *Irribanda*, ikasle ohien bazkaria, Ikastolaren historia biltzen duen liburua... Ekintza zaparrada; ikasle, irakasle eta gurasoek elkarlanean aurrera eramanak guztiak. Urteurren ospakizunekin motorrak berotu eta Kilometroen antolaketan murgiltzeko prest zegoen Ikastola 2017ko udaberrian. Bi gauza dira, baina badute berdintasun bat: ikasle, irakasle eta gurasoak elkarrekin arituko ziren berriro.

Bat eginik aritzearen inguruan hausnartzen, proposamen bat egin zuen Guraso Kontseiluak: Kilometroen antolaketan jardungo zuten batzordeak eratzean, Ikastolak berez duen mailaketa sistema baliatzea. Hau da, ikasmaila bakoitzak batzorde bat osatuko zuen. Honekin, komunitatea



indartzea izan du Urrretxu-Zumarraga Ikastolak helburu, sarea sendotzea. Eta, horrela hasi zuen Ikastolak Kilometroetako abentura: komunikazio ildo definitu, batzordeak eratu, beharrak identifikatu, batzordeetan lagungarri izango zen jendea bilatu, urteko plangintza diseinatu, ekitaldien nondik norakoak zehaztu, Kilometroak egunari heldu eta abar luze bat.

Ez da erraza bidea. Aldapatsua batzuetan, lauagoa besteetan. Galtzeko arriskua ere badago, eta mapa begiratu behar orduan. Komunikazio

Datuak:

Duela lau urtetik hona, Mikel Egibar da Kilometroak jaiaren koordinatzaile nagusia. Aurtengo jaiaren koordinatzailea Aitor Gabirondo da.

Gorka Ojangurenek sortu du leloa, eta Mikel Ruizek irudia.

Abestiaren letra Manex Mantxola, Mikel Iturriotz eta Amaia Iturriotz Urrretxu-Zumarragako Bertso Eskolako kideek idatzi dute. Doinua, berriz, Secundino Esnaola Musika Eskolak konposatu du.

Antolaketarako hamalau batzorde sortu dira, eta urte osoan 300 lagun inguru aritu dira lanean. Kilometro egunean 1.500 pertsona beharko dira batez beste.

Urte osoan, Kilometroetako arropak erakusteko katalogoak osatu ditugu. Modelo lanetan primeran moldatu dira gure ikasleak.



Lanku
www.lanku.eus

bertso saio bat
ANTOLATU NAHI?



ildoa da mapa; bertan zehazten dira Kilometroak antolatzerakoan ikastolak dituen helburuak. Eta helburuek markatzen dute norabidea. *Zubiak batuz* da aurtengo leloa, eta hainbat zubi batzea izan da xedea: konfiantzaren zubia, harremanen zubia, komunitatearen zubia, aniztasunaren zubia, euskararen zubia...

Noski, Kilometroak antolatzeak badu ere helburu ekonomikoa. Baina, ziur, lanean jardun dutenen oroimenean ez da zenbaki bat geldituko. Taldean egin da lan. Elkarrengandik ikasiz. Bat eginik, norabide berean aurrera.

Nekane Artola

Kilometroak Kultur Elkarteko lehendakaria

«Elkarlana da horrelako ekimen bat antolatzeko oinarria»



2016tik da Kilometroak Kultur Elkarteko buru Artola.

Urretxu-Zumarraga ikastolari egokitu zaio aurtengo Kilometroak jaia antolatzeko. Gipuzkoako ikastolen jaia urte osora zabaldu den egitarau oparoarekin datorrigu, elkarlanean antolatutako ekimen ugaziz osatua. Elkarlana baita horrelako ekimen bat antolatzeko oinarri. Elkarlanari lotuta dago elkartasuna. Izan ere, ikastolaren barne elkartasunari esker lortzen baitugu horrelako ekintza kolektiboak aurrera ateratzeko.

Ikasle, irakasle eta gurasoak gara ekimen hauen protagonista nagusi. Gure seme-alabak ikastolan matrikulatzeko hautua egin dugunetik, izaera kooperatiboa duen mugimendu baten parte gara. Izaera kooperatiboak, bere forma juridiko-organizatiboaz gain, bere baitan lan egiteko modu bat dakar. Egungo jendar-tearen joerei aurre eginez, ikastole-tako gurasoak aurrez aurre dugun erronkari heldu behar diogu: barne elkartasunetik abiatuz, elkarlanean eta parte hartze aktiboan oinarritutako ikastola ereduari eustea. Eredu honen euskarri diren harremanak euskaraz eta euskaratik sendotuz. Ikastole-tako hormetatik haratago gure herri eta auzoei ekarpen kolektiboa eginez eta herrigintza modu aktiboan elikatuz. Aurrekoek botatako talde izerdiari esker dugun ikastola ondorengoek ere jaso eta bide eman diezaioten.

Modu horretan jarraituko dugu Gipuzkoako ikastolok urtero Kilometroak antolatzen. Eredu berriak, gainera, oinarri horien sendotzea dauka helburu, Gipuzkoako ikastolen arteko zubiak indartuz. Familiatik familia, familiatik ikastolara, ikastolatik ikastolara, ikastolatik herrira... euskararen zubia eraikitzen jarraituko dugu.



1959
urtetik

Matxinporta 30
(Urretxu)
943 72 04 18



Pol. Mugitegi, vial B2-4
20700 Urretxu (Gipuzkoa)

T. 943 72 40 07
F.943 72 12 38

www.iri-be.com



Erronka ere, zubiak batzeko

Aurtengo lehiaketan
19 ikastolak
hartuko dute parte.

Azken urteetan Kilometroaren egunean aparteko indarra hartu duen Erronka ere izango da gurean. Gazteen artean ondo errotu den ekimena da. Nahiz eta lehiaketa formatua izan, Erronkak kirolaren bidez balore positiboak jorratzea du xede, besteren artean, talde lana. Euskaraz, lagun artea bultzatu eta egun ederra igarotzeko aukera aproposa da.

Aurtengo Erronkan 19 ikastolak hartuko dute parte. Talde bakoitza zortzi eta hamasei ikasle bitartekoa izango da, eta bi kapitain izango ditu. Erronka lau guneean egingo da: 11:00etan eta 13:00etan. Finala arratsaldean jokatu da, igerilekuan.

Aurtengo Erronkak badu berritasunik, izan ere, finalera talde guztiak sailkatuko dira, eta final horrek hiru atal izango ditu: hasiera batean talde guztiak arituko dira, eta horietatik zortzi onenek egingo dute aurrera. Bigarren atalean, zortzi horien artetik lau sailkatuko dira, eta final handian lau onenak arituko dira. Arratsaldeko finala hasterakoan, goizeko probetan lortutako puntuazioa kontuan hartuko da.

Sasoi onean egon eta kirolari aparta izatea ez da nahikoa izango. Burua argi edukitzea eta pentsatzeko abilezia erakustea ere funtsezkoa izango da. Toka, mailuketa, giza-proba, mosaikoa, *Hamelgo Dorrea*, eskalada... horiek dira parte hartzaileek egin beharreko zenbait proba.

Ondoen moldatzen den taldea izango da garailea, baina Erronkak bestelako txapeldunak izatea ere nahi dugu. Gazteak euskaraz, elkar hartuta, eta giro jatorrean aritzea nahi genuke.

Animo parte hartzaile guztiei!



Aurtengo Erronkak berekin dakarren berritasunetako bat finalera talde guztiak sailkatuko direla da



Harremanen zubiak batuz, Nazio Topaketa arrakastatsua



Euskal lurraldeetako 14-16 urte bitarteko gazteen topagune bihurtu ziren otsailaren 24an Urretxu eta Zumarraga. Kilometroak 2018ren harira antolatutako Nazio Topaketan Gasteizko Armentia Ikastolak, Getxoko San Nikolas Ikastolak, Atarriabiako Paz de Ziganda Ikastolak, Kanboko Xalbador Kolegioak eta Urretxu-Zumarraga Ikastolak hartu zuten parte.

bat, gure bi herriak ezagutzeko. Parte hartzaile eta antolatzaileek elkarrekin bazkaldu zuten, eta ondoren dantzarako eta kanturako tartea ere izan zuten. UZ Ikastolako *Batuz* batukadak izan zuen denbora tarteak girotzeko ardura.

Ekitaldiaren helburu nagusia gazteak euren artean nahastu eta elkar ezagutzea izan zen. Pertsona guztiak gara ezberdinak, bai fisikoki eta baita izaerari dagokionez ere. Aitzitik, aniztasuna aberasgarria da, elkar ezagutzen eta elkar ulertuz, elkarrengandik ikasteko aukera dugu. Eta hori da martxoaren 17ko Nazio Topaketa horrek lortu nahi zuena: harremanen bitartez zubiak batzea, Kilometroak 2018ren leloari jarraituz.



Bildu ziren 75 ikasleen artean giro bikaina sortu zen elkar ezagutu zuten momentutik, eta egun-pasa ederra egin zuten. Festa egunaren erdigune Urretxuko Gernikako Arbola plaza izan zen. Lehendabizi, talde bakoitzekoak besteei ongietorria egin zieten bertso bana kantatuz. Ondoren, joko eta jolas ezberdinak egin zituzten, talde izaera sustatzeko. Horrekin batera, orientazio proba



GARBITU

INDUSTRIA GARBITASUNA



KIMIKOAK



ZELULOSAK



OSAGARRIAK

Banatzaille ofiziala:



XIMEN

94 671 48 48

euskal@garbitu.net

Kilometroak munduan!



Seattle (Washington, AEB)

Ikastolako hainbat ikasle izan dira udan atzerrian ingelesa ikasten. Bertan ere zubiak batzeko aukera izan dute.



Elizondo (Nafarroa)

Euskal Herrian ere paraje ederrak ditugu. Elizondo eta inguruak, adibidez.




Budapest (Hungaria)

Oporretarako edozein leku da aproposa. Elene eta Olaia Buda eta Pest batzen dituen zubian izan dira.



Taormina (Italia)

DBH4ko ikasleek Siziliako Augusta herriko ikastetxe batekin trukea egin dute. Martxoan joan ziren gureak hara.



Puerto Vallarta (Jalisco, Mexiko)

Kilometroetako jantziak bakarrik ez, Gure Zozketako txartelak ere urrutira heldu dira.



Ghana (Afrika)

Europar eta Amerikan bakarrik ez, Afrikan ere izan dute Kilometroen berri.



Acherito aintzira (Huesca)

Mendi garaietan ere batu ditugu zubiak: 1.875 metrora dagoen Acherito aintziran, Echoko ibarrean, adibidez.



Kärnten (Austria)

Gema Hernandez triatletak Austriako Ironman probara eraman zuen Kilometroetako bandera.

La Perla

Pinturas - revestimientos

Tlf: 943 721 758

- Aholkularitza eta zahar-berritze lanak, etxeurre, etxebarru, komunitate eta industriagunetan.
- Zoladuren salmenta eta instalazioa.
- Makina, bulego zein industria-pabiloien margotze lanak.
- Isolamenduak eta hezetasunaren aurkako soluzioak.
- Margoak orokorrean.
- Margo materialen hornikuntza.

Beti euskararen alde!



www.pinturaslaperla.com

Urretxu - Zumarraga

-  SOS
-  KOMUNAK
-  ELBARRITUEN-TZAKO KOMUNAK
-  PARDELAK ALDATZEKO GUNEA
-  TXOSNA
-  BAZKARIAK
-  IZOZKIAK
-  KMK DENDA
-  TIKETAK
-  ERRONKA PROBAK
-  ITURRIA
-  KAFEA
-  TONBOLA

1 > IKASTOLA





2 > ZUMARRAGAKO PLAZA



PLAZA

LIZEOA

ZELAI ARIZTI



09:30-10:00 HASIERA EKITALDIA
12:00-12:30 OMENALDIA LOURDESKO AMA ELIZAN

12:30-15:00 GASTRONOMIA LEHIAKETA + BAZKARIA
15€ HELDUAK / 8€ HAURRAK

EGUN OSOAN PUZGARRIAK ETA TALOAK

IBILBIDEAN ZEHAR:
TXISTULARIAK, TRIKILARIAK, UROLATARRAK TXARANGA, DULTZAINEROAK, BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIK, R KE R ELEKTROTARANGA, ERRALDOIAK ETA ABAR.

10:30-18:30 ARTISAU AZOKA NEKOLALDE PLAZAN
EGUN OSOAN KULTURARTEKOTASUN TAILERRAK ETA KAIKUTXO IPUIN KONTAKETA ZELAI ARIZTIN

EZ AHAZTU!

ITZULI!

ITZULTAKOAN: EMO DAT BEAZLE ZINETZAT

Hondakinak sailkatu

- Materia organikoa
- Ontzi arinak
- Papera eta kartoiak
- Beira

PRIMERAN PASA PASATU GABI

AUKERAN, GARBIAN EDA

3 ▶ ETXABURU



4 ▶ SANTA BARBARA



- 10.15
- 10.30
- 10.45
- 11.00
- 11.15
- 11.30
- 11.45
- 12.00
- 12.15
- 12.30
- 12.45
- 13.00
- 13.15
- 13.30
- 13.45
- 14.00
- 14.15
- 14.30
- 14.45
- 15.00
- 15.15
- 15.30
- 15.45
- 16.00
- 16.15
- 16.30
- 16.45
- 17.00
- 17.15
- 17.30
- 17.45
- 18.00
- 18.15
- 18.30
- 18.45
- 19.00

ERRONKA PATXUKO NICE

ERRONKA OSO FAN

GORPUZKINGZ

ERRONKA

ERRONKA

MADELEINE

WILLIS DRUMMOND

LA BASU

VOLTAIA

OIHAN VEGA

ERASO

HESIAN

12:30-15:00 BAZKARIA
ALDIRI KIROLDEGIAN
15€ HELDUAK / 8€ HAURRAK



EGUN OSOAN AXI MUNIAIN "CARVER"


Errefusa
Alkohola eta beira zirkuituan sartzea debekatua dago.

ERASO
SEXISTARIK
EZ!!

Jaiak aske bizi eta gozatu

GOGORATU! URRIAK 21ean
IZI
Nafarroa Oinez'18
Altsasun





Zirkuituaren inguruko informazioa

Ibilbideak 5,9 kilometro izango ditu, eta lau gunek: Ikastola, Zumarragako plaza (Euskadi enparantza, Lizeoa eta Zelai Arizti batuko ditu), Etxaburu eta Santa Barbara. Gehieneko desnibela 200 metrokoa izango da.

Gipuzkoar askok trenez etortzeko aukera izango duzue. Horregatik, Renfek aldiriko tren zerbitzu bereziak jarriko ditu. Halaber, bizikletaz etortzeko gomendioa ere egin nahi dizuegu. Horretarako, bi aparkaleku berezi egongo dira: Urretxuko pilotalekuan, Azkoitia aldetik zatoztenentzat; Pagoeta auzoan dagoen Kamineroen Etxean, Legazpi aldetik edo Antzuola-Bergararik zatoztenentzat.

Elbarrien txartela dutenek tren geltokiko aparkalekuan utzi ahal izango dute kotxea. Eta autokarabanan datozenek ArcelorMittal enpresako aparkalekuan.


5,9 km

4 gune

200m-ko desnibela

Bizikletentzat aparkaleku bereziak

Urriaren 7an
Kilometroetako
denda lau lekutan
egongo da:
Ikastolan, geltokian,
Zumarragako plazan
eta Santa Barbaran



ZU²AK1UZ

Urretxu-Zumarraga KILOMETROAK 2018

Urretxuko udala

www.urretxu.eus



ZU²AK1UZ


Urretxu-Zumarraga KILOMETROAK 2018

ZUMARRAGAKO

UDALA

ZUMARRAGA

10110 ZUMARRAGA



www.zumarraga.eus

Goizetik arratsera, ekitaldi zaparrada

Egitarau zabala prestatu dugu Kilometroak jairako. Adin eta gustu guztiei zuzendutako ekintzak bildu ditugu. Guztiak aurreko orrietan jasota dagoen egitarauan kontsultatu ditzakezue. Guk, ordea, zenbait proposamen bildu dizkizuegu ondoren.

IKASTOLA



Hasiera ekitaldia eta omenaldia:

Urrtxu-Zumarraga Ikastolaren atarian emango diogu ofizialki jaiari hasiera. Eguerdian, omenaldia egingo dugu Lourdesko Amaren elizan. Ikastolaren lehen urteetan edukigintzan aritu zirenei aitortza egingo diegu.



Gastronomia lehiaketa:

Urrtxuko jaietako lehiaketaren antolatzaileren eskutik, hainbat kuadrillak garaiko produktuekin egindako jakiak prestatuko dituzte. Ondoren, menu hori bazkaltzeko aukera egongo da.



Haurrentzat ekintzak:

Magia eta musika emanaldiez gain, tailer ezberdinak izango dituzte etxeko txikienek euren gozamenerako: sormena landu, zientzia esperimenduak egin edo henna-rekin margotu ahal izango dute, besteak beste.

ZUMARRAGAKO PLAZA



Gozategi:

Herrigunean Gozategi taldearekin emango diogu amaiera jaiari. Zarautzek izango du ordurako lekukoa, 2019. urteko edizioa prestatzeko.



Kulturen azoka:

Dantza, jaki, kirol eta tailer ezberdinen bidez gure komunitatea osatzen duten beste kulturak ezagutzeko aukera izango dugu.



Bentazaharreko Mutiko Alaiak:

Euskaldunok kanturako dugun zaletasuna ez da nolana hikoia. Eguerdian, kantuz eta doinuz alaituko dituzte plaza eta inguruak.

Gozatu familian edo lagunekin naturaz gure ostatuetan



Tiktara taldeko kideek munduko erritmo eta melodiak kantatu eta dantzatuko dituzte eguerdi partean Zumarragako plazan.

Ikastolan ez ezik, Aldiri kiroldegian ere bazkariak emango dira. Segurako Iparra Hegoa ekimeneko kideek prestatuko dute. Bestalde, kiroldegi ondoko aparkalekuan eskulangintza azoka izango dugu

ETXABURU



Gorpuzkingz:

Trap musika euskaraz ere egin daitekeela erakusten du Hondarribiko taldeak. Euren kantek kaleko bizipen gogorretan oinarritutako letrak dituzte.



Willis Drummond:

Rock doinuak ekarriko ditu Baionako taldeak Urretxu eta Zumarragara. Euren zuzeneko emanaldi ikusgarrirei esker, gaur egungo euskal eszenan talde aktiboenetakoa eta ezagunenetakoa da.



Erasol:

Zarazuko laukoteak itxiko du bere rock doinu indartsuekin Etxaburuko gunea. Hogei urteko ibilbidea duen taldeak ez du hasierako freskotasuna galdu.

SANTA BARBARA



Hesian:

Jaiari amaiera emateko, musika indartsu eta bizia eskaintzen duen taldea izango dugu bere zazpigarren diskoko kantuek eskaintzen.



La Basu:

Rapa euskaraz eta emakume baten eskutik izango dugu Santa Barbaran. Bilbotik zuzenean erreferente bihurtu den kantaria.



Axi Muniain Carver:

Skate gainean patinatzea gustuko dutenek edo ikasten hasi nahi dutenek, Axi Muniainekin hitzordua dute. Surfean bakarrik ez, asfalto gainean ere maisua da zarauztarra.

etc

ESTUDIO TEXTIL COLOR

- Estampación Textil -
- Camisetas publicitarias -
- Viajes de estudios -
- Colecciones moda -
- Eventos deportivos y culturales -
- Ropa laboral -
- Bordados e impresión digital -
- Adhesivos vinilo -

Igeltzera Industrialdea, 8
48610 Urduliz
Bizkaia

- Ehunen estampazioa -
- Publizitate kamisetak -
- Ikasbidaia -
- Moda kolekzioak -
- Kirol eta kultura ekitaldiak -
- Lanerako arropa -
- Bordatuak eta inpresio digitala -
- Binilo itsasgarriak -

94 676 06 81

etc@estudiotextilcolor.com
www.estudiotextilcolor.com

Herriz herri, Gipuzkoan barrena



Ehunka kilometro egin ditugu Gipuzkoan barrena denda ibiltariarekin eta peto berdea jantzita, Gure Zozketako txartelak saltzen. Auzo, herri eta hirietako jaiak; artisa, janari edo landare azokak; kirolarekin edo gastronomiarekin lotutako ekitaldiak; ikastola ezberdinen kurtso amaierako festak; hondartza egunak edo jende andana biltzen duten mendi parajeak... Edozein aukerari heldu diogu Kilometroen berri eman eta gure produktuak eskaintzeko. Eskerrik asko gurekin zubiak batu dituzuen guztiei!



Kutxa Fundazioan euskara bizi dugulako

Elkartasuna, Kultura, hezkuntza, zientzia, ingurumena, aisia...

Era guztietako adierazpenak euskaraz bultzatzea gure gizarte-konpromisoaren parte delako.

Urriak 7, Urrretxu-Zumarraga



www.kutxa.eus

montte

Euskararekin bat!

Enpresa eta kolektibitateen ekipamendu osoa

www.montte.com

montte projects

Eremu eta barne
ekipamendu proiektuak

www.montteprojects.com

montte tech

Azpiegitura informatiko eta
tecnologi soluzioak

www.monttotech.com

montte supplies

Enpresa eta eskoletarako
horniketa orokorra

www.montte.com

Ateak zabalik, urteko 365 egunetan

ZUMARRAGA

Urretxu-Zumarraga; Zumarraga-Urretxu. Non gaude? Galdera hori egiten dute lehen aldiz gurera datozenek. Urola ibaiak banatzen ditu bi herriak, eta garai batean trenbideak ere bai. Gogoratzen Urolako Trena? Gaur egun, Areizaga-Kalebarren plazan batzen dira Urretxu eta Zumarraga, eta betiko Isabeleko zubiaz gain, bi zubi berri ditugu.

Bi herri izan arren, egunerokotasunean gauza asko partekatzen ditugu urretxuarrek eta zumarragarrek, besteak beste, aisialdi eta kultur eskaintza anitz eta zabala. Urriaren 7an bakarrik ez, urteko 365 egunetan ateak zabalik ditugu, eta atsegin handiz hartuko zaituztegu gurean.



01 SANTA LUTZI FERIA

Abenduak 13

Santa Lutzia eguna dugu gurera bisitari gehien erakartzen dituen hitzordua. Gipuzkoako nekazaritza eta ganadu feria garrantzitsuenetakoa da abenduaren 13an Urretxuko eta Zumarragako kaleetan ospatzen dena.



02 SANTA ISABEL EGUNA

Uztailak 2

Zumarragak uztailean ospatzen ditu herriko jaiak, Santa Isabel egunaren bueltan. Uztailaren 2a egun handia da, Antioko amaren aurrean ezpata dantza egiten baita. Erromeria eta jai giro ederra izaten da egun horretan Antioko zelaletan.



03 ANTIOKO BASELIZA

Beloki hiribidea, z/g, [Zumarraga] · 943 72 20 42

Antioko basiliza bisitatzeko aukera paregabea eskaintzen digu ere irailean larunbatero bertan ospatzen den musika zikloak, edo urteko edozein garaitan *Ignaziotar Lurraldea* egitasmoak. Ermitaren ondoan kokatutako Interpretazio Zentroan du egoitza Urola Garaiko turismo bulegoak.



04 LEGAZPI DORRETXEA

Artiz auzoa, 30, [Zumarraga] · 943 72 20 42

Zumarragara etorritz gero, Legazpi dorretxea ezagutzeko aukera ere badugu: Miguel Lopez de Legazpi Filipinen kolonizatzailea jaio zen bertan, eta hortik datorkio izena. Eraikina Secundino Esnaola Musika Eskolaren egoitza da gaur egun eta herriko kultur ekitaldi asko ere bertan egiten dira.



05 BUZKANTZA EGUNA

Azaroan

Jose Maria Busca Isusi gastronomoaren omenez, Buzkantzia Eguna antolatzen da azaroan Zumarragan: buzkantzia dastaketa eta salmenta, artisau azoka, herri kirolak... Aginaga auzoan ere jaiak izaten dituzte sanmartinetan.

Igartubeiti Familiarian!

Deskubritu Igartubeiti Martintxorekin jolasean

EZKIO - 943 72 29 78
www.igartubeiti.eus


Urola Garaiko turismo eskaintzaren inguruko informazio zabala topatuko duzue www.urolagaraia.com webgunean

URRETXU



IPARRAGIRRE

Urretxuarrak Jose Mari Iparragirre kobla-kariaren jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatzeko prestatzen hasi dira. 2020an izango da, eta hainbat ekintza eta oroimenezko jardura antolatuko dira. Laster ekingo zaio herri batzordeen eta lan taldeen egitura-tzeari.



TOURSEKO SAN MARTIN ELIZA

Iparragirre plaza, [Urretxu] · 943 72 18 49

Iparragirre plazan, herriko seme kuttunaren omenezko estatuaz gain, Tourseko San Martin eliza bisitatu dezakegu. Bere egurrezko kupulak berezi egiten du tenplu hau, arkitektura aldetik ez ezik, akustika aldetik ere bai. Hori frogatzeko udazkenean antolatzen den musika ziklora joan besterik ez dugu.



FOSIL ETA MINERALEN MUSEOA

Jauregi kalea, 19, [Urretxu] · 943 03 80 88

Fosil eta mineralen topagune ere bada Urretxu, Aguado-Goñi familiak egindako lanari esker. Batetik, Urrelur museoa bisitatu dezakegu kultur etxean. Bestetik, azaroaren hasieran azoka garrantzitsua egiten da Ederrena pilotalekuan, mundu osotik etorritako aditu eta bildumazaleekin.



AIKUR ERLE MUSEOA

Santa Barbara bidea [Urretxu] · 630 70 25 87

Santa Barbara bidean Aikur museoa topatuko dugu. Bertan, Otegi-Epelde familiako kideen eskutik erleen bizitza eta ekosisteman duten garrantzia ezagutzeko aukera izango dugu. Erlauntzako produktuak ere eskaintzen dituzte.



SANTA BARBARA ATERPETXEA

Santa Barbara auzoa [Urretxu] · 943 72 33 87

Santa Barbara aterpetxeak talde, familia edo norbanakoentzako zerbitzu ugari ematen ditu: bertan lo egiteaz gain, jardura ezberdinetan parte hartzeko aukera eskaintzen du. Mendi ibilaldi bat egin ostean, otordua ere egin dezakegu bertan.



URRETXUKO EUSKAL JAIA

Irailean

San Joan egunarekin batera, urretxuarrak Santa Anastasia jaiak ospatzen dituzte irailan, eta bereziki maite dute Euskal Jai eguna. Goizean goizetik giro ederra izaten da, eta ikusgarria da, benetan, arratsaldeko karrozen desfilea.



**Zumalakarregi
familiar!**

**Ezagutu
Museoa
Eliot
katalajeuarekin
jolasean!**

20216 Ormaiztegi
Tf.: 943 88 99 00

mzumalakarregi@gipuzkoa.eus
www.zumalakarregimuseoa.eus



Euskarak batzen gaitu

Ikastolako komunitatea jatorri ezberdineko familiek osatzen dugu. Gure etxeetan euskara soilik ez, beste hainbat hizkuntza ere hitz egiten dira.

Beste hizkuntza horietan Kilometroen leloa nola esaten den ezagutu nahi al duzu?

Uniendo puentes
(Espainia)

Connecting bridges
(Erresuma Batua)

بلڈنگ عمارت
Pakistan

Gettando ponti
(Italia)

Uniendo puentes
(Nikaragua, Honduras eta Ekuatore Ginea)

Unim podurile
(Errumania)

Brücken bauen
(Alemania)

Construindo pontes
(Portugal)

بناء الجسور
(Arabia, Maroko)


euskarak

batzen gaitu



Kilometroak jaiarekin bat!!

Telf. 943 84 05 34
Larrialdiak 680 34 06 99



LAU
HORTZ KLINIKA

Bidezar Kalea 5
20700 Zumarraga (Gipuzkoa)
T.943 84 05 34 - M. 680340699
klinika@lauhartz.eus



Polígono Industrial Aizkoeta , 23
20214 SEGURA – GIPUZKOA
Telf : +34 943 801340-+34 943 801440
Fax : +34 943 801905
E-mail : kendu@kendu.es

www.kendu.es

PERFORMANCE



Kendu, can do it

PERTSONA OSASUNTSUAK, ENDRESA OSASUNGARRIETAN



- Laborategia
- Prebentzio teknikoa
- Medikuntza
- Aholkularitza eta formakuntza
- Osasun eta ongizate zerbitzuak


osarten
kooperatiba elkarte

Jose Maria Arizmendiarieta Pasealekua, 1
ARRASATE (Gipuzkoa)
943 79 00 90
osarten@osarten.com

www.osarten.com

Denbora-pasak



NGI ETORRI

Ondoko marrazkian agertzen diren 4 garraiobideetatik bakarra erabiliz iritsi ahalko zara zirkuitora. Dena den lasai, urriaren 7an ospatuko dugun Gipuzkoako ikastolen festa handiaz gozatze-ko bertan agertzen diren edozein garraiobide erabili ahal izango duzu.



N EGIN!

Zerbait handia ari da egosten gurean... Osagai desberdinak nahastu ditugu gure errezeta magikoa egi- teko, baina ustez, gehiegi, emaitza hizki-zopa izan baita... Lagunduko diguzu hizki-zopa hau argitzen?



W O L Z G N W Z E C J S R K O
 H I U U F R Y V T N T P Y T H
 E U A B K G Z Z U W W P E T B
 R K N I M M I X Y K V T H L N
 R A G A R R A M U Z S A L Z H
 I H K K N T H U X T E R R U T
 A E O E J F N F B P L H R W A
 H W N A E T A T I N U M O K P
 L H F K S H A R A K S U E P N
 B S I P S S R O B D X U A X B
 R S A N X I K A S T O L A G A
 O T N N C E S O H O Z C D J R
 C F T Y G L M H E V Q K T O Q
 Z C Z A U F R Z G U C X V B E
 Q I A Q T Y Y B A F P K H C D

URRET XU
 ZUMARRAGA
 ZUBIAK
 IKASTOLA
 KONFIANTZA
 HERRIA
 KOMUNITATEA
 EUSKARA



ENDO ZORROZTU BEGIAK!

Aldameneko marrazkiek aurtengo logoaren itzala badirudite ere, soilik bakarra da zuzena. Jakingo al zenuke esaten zein den?




ORTZI MUGARA BEGIRA

Oskarbi dagoen gauean zerura begiratu eta izarrez jositako irudi desberdinekin osaturiko konstelazioak osa ditzakegu. Zeruak bezala, guk ere irudi desberdinez jositako mezu bat bidaltzen dizugu... Ea asmatzen duzun mezu ezkutua



Erantzunak



3) Hirugarren aukera

4) Ametsik gabeko bizia, izarrik gabeko gaua

Zubizikletaren bidea iruditan



Kilometroak jaiaren lekukoa, Oñatitik Urretxu-Zumarragara



Mendiz mendi iritsi zen lekukoa Ikastolara



Aurkezpen ekitaldiak eman zion hasiera Kilometroak 2018ri



Denda ibiltaria herriz herri ibili da urte osoan



Gure zozketa munduan zehar



Kilometroak munduan barrena



Goierriko Hedabideak taldearekin lankidetzaz hitzarmena



Olio tantaz tanta, zubiak batuz



'Kilometroak bidea' erakusketa



UTBk eta Kilometroak 2018k hitzarmena sinatu zuten



Eñaut Elorrietaren kontzertua Tourseko San Martin elizan



Kilometroak 2018ko kanta eta bideokliparen aurkezpena




Urteko sasoi bakoitzeko arropa katalogoak



Kilometroak txikiak urriaren 7a irudikatu zuen tamaina txikian




Kilometroak egun handiko zirkuituaren aurkezpena



Klikmetroak: zirkuitu birtualari ahalik eta bira gehien ematea

Argazki gehiago ikusteko: kilometroak.eus



Ikastolako kide guztiek mugitu dituzte *Zubizikletaren* gurpilak: ikasle, irakasle, langile, guraso, aitona-amonak, ikasle ohi... Denon indarraz egin du aurrera, eta pedalkada ugari eman ondoren, helmugara iritsiko da urriaren 7an.



Gabonetako saskia,
Tonbolaren lehen urratsa



Gure Zozketa ekimena ere
txoko guztietara iritsi da



Gabonetako kontzertu berezia
zubiak batzen hasi zen



Lagun ezagun askok bat egin
dute Kilometroak 2018rekin



Belaunaldi ezberdinetako 768
lagun lasterka, Kilometroen alde



Lilatoian ere, zubiak batuz



Kilometroak jaiaren eredu
berria aurkeztu zen



Euskal lurraldeen arteko
nazio topaketa



Berto saio bikaina Kilometroak
2018ren eskutik



Ikastolek Mendimetroak
ospatu zituzten



'Zubirik Zubi' ikuskizun handia,
Donostiako Kursaal



Xaboi tailerra, Ekolioren eskutik



Kilometroak 2018, Zumarragako
jaietan



Gure Zirkuarekin ere batu
ditugu zubiak



Zirkuituari biraka

Gure lehen Kilometroak jaian, 1985ean, zenbait kirolariren arteko apustua jokatu zen: ea nork zirkuituari itzuli gehien eman. Hogeita hamahiru urte geroago, aro digitalean erabat murgilduta gauden honetan, erronka bestelakoa da: zirkuitu birtualari ahalik eta bira gehien ematea.



Klikmetroak ekimena 2011 urtean jaio zen, Azpeitiko Ikasberri Ikastolak antolatutako Kilometroetan. Jaiaren hastapenari keinu egin zioten azpeitiarrek. Izan ere, 1977an, Beasainen ospatutako lehen Kilometroetan, babesleek diruz lagundu zituzten hainbat lagunek zirkuituan egindako kilometroak. Esaterako, Lankide Aurrezki Kutxak (egungo Laboral Kutxak) 150.000 pezeta eman zituen Aita Barandiaranek egindako kilometroen truke, eta Beasaingo Merkatarri Elkarteak, berriz, 500 pezeta ordaindu zuen Lazkao Txiki bertsolariak egindako kilometro bakoitzarengatik. Klikmetroekin Kilometroen filosofia berrasmatu da, orduko ezaugarriak egungo gizartera egokituz: orain, sarean dago zirkuitua. Helburua zirkuitu birtualari ahalik eta bira gehien

Zirkuitu birtualean metro bat egiteko, www.klikmetroak.kilometroak.eus webgunean sartu, bertan azaltzen den egin zure metroa botoiaren gainean klik egin eta adierazten diren pausoak jarraitu

1985eko Kilometroetan egindako kirol apustuko protagonistak.

ematea da. Herritarrek metroak eskuratu ahal izango dituzte sarean, eta enpresa, merkatarri eta elkar-teeke metro horiek diruz babestuko dituzte. Zirkuitu birtualean metro bat egitea doakoa da eta oso erraza: www.klikmetroak.kilometroak.eus webgunean sartu, bertan azaltzen den egin zure metroa botoiaren gainean klik egin eta adierazten diren pausoak jarraitu. Bisitariak metroak eskuratu eta hortik aurrera webgunean azalduko dira metro horren jabearen

izen-abizenak, argazkia eta bertan utzitako mezua. Gipuzkoa mailan, Internet bidezko ekimen garrantzitsua da Klikmetroak. Hain zuzen ere, bere sortze urtean, publizitate arloko Argia saria jaso zuen, Ikasberri egindako lana aitortuz eta proiektuaren izaera berritzailea azpimarratuz. Urtez urte, Kilometroak jaia antolatu duen ikastolak segida eman dio ekimenari. Beraz, ikastolakide, oraingo honetan Urrretxu-Zumarraga Ikastolarekin zubiak batu eta egin Klik!



Gasgarin S.A.

GAS REPSOL AGENTZIA

TEL.: 943 88 25 76





Haziko al da euskarazko ekoizpena?

Euskarazko ikus-entzunezko edukien etorkizuna guztion ardura da. Eraiki dezagun gure etorkizuna denon artean, Gipuzkoa izan dadin Europan desberdintasun gutxien duen lurraldeetako bat.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ
El futuro de Gipuzkoa

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

aurretik doan unibertsitatea



UNIBERTSITATE GRADUAK

INGENIARITZAK

HEZKUNTZA

IKUS-ENTZUNEZKO
KOMUNIKAZIOA

ENPRESA
KUDEAKETA

EKINTZAILETZA

GASTRONOMIA